

HERNANIK kronika

2003 urtea
Abuztuak 16
Larunbata
Alea: 851
www.kronika.net



Duela hiru urteko eta iazko argazkiak, batean Goizuetara iristeko gertu eta bestean urtero eramatzen duten mojito bidoiarekin eskultura egiten.

Hernani eta Urnietako lagun talde bat aurten 19 garren aldiz joango da oinez Goizuetako festetara

■ Mendi buelta eta parranda batera egiten dituzte eta ibilbidea lasai egiten dute ■ Urtero mojito bidoia eramatzen dute biderako eta Azketan egiten duten afarian bonitoa erretzen dute parrillan ■ Gaur aterako dira arratsaldeko 18:00etan Kardaberaz Kaleko Bodega Tabernatik.

GOIZUETAKO festen aitzkian Hernaniko eta Urnietako lagun koadrila batek Hernanitik Goizuetarako mendi martxa egitea erabaki zuen duela 19 urte. Ordu ezkerotzit urteroko ohitura bihurtu da eta eguzki, euri edo kazkabarre egin Goizueta aldera abiatzen dira, ondo pasatzeko asmoarekin. 19 urte hauetan istorio xelebre mordoa bizi izan dituzte, mendi buelta eta parranda batera egitearen ondorioz. Aurtengoan ere asmo berarekin doaz eta gaur, larunbata, arratsaldeko 18:00etara geratu dira Bodega Tabernan Goizuetara abiatzeko.

1984garren urterik hona
Goizuetara egin zuten lehen mendi martxa duela 19 urte

izan zen, 1984garren urtean. Ohitura honekin jarraitzeo arrazoia lagun baten heriotza izan zen, mendi martxako bigarren urtean Aljezirasen zegoela gertatu zen heriotza. Laguna gogoratzeko mendi martxa urtero egitea pentsatu zuten eta gaur eguneraingo jarraitu dute ohiturrekin. Aurtengoan ere badute beste omendu bat, lehengo urtean hil zen Urnietako laguna: *Arros*.

Urte guzti hauetan *Putre* aritu da mendi martxa antolatzen baina aurtengoan berak ezin zuenez Agustin Galartzak eta Joxean Landaribarrek antolatu dute. Antolatzaillek esan digitenez, jende dexente biltzen da mendi martxarako

eta urtero jende berria azaltzen omen da. Bakoitza 10 euro jartzen ditu eta horrekin mendi martxarako behar dituzten gauzak erosten dituzte: urtero eramatzen mojito bidoia, afaltzeko parrillan erretzen duten atuna, eta abar.

Ibilbidea

Hernanikoak direnak Kardaberaz kalean dagoen Bodega Tabernatik ateratzen dira arratsaldeko 18:00etan, eta Urnietakoak direnak aldiz Besabitik. Bakoitza bere ibilbidea egin ondoren Adarra atzeko monolitoan biltzen dira, bertan atsedena hartzen dute eta monolitoaren inguruan jartzen dira arbasoak gogoratzeko. Adarrako punta atzean utzi eta

Azketara abiatzen dira, eta bertan dauden uso postuetatik gertu, afaria egiteko prestatzen dira. Inguruan dagoen borda baten babesean sua egiten dute, parrillan atuna erretzen dute, danborrak jotzen dituzte, eta abar. Hemendik aurrera Goizuetako bidea erraz aurkitzen denez, bakoitzak nahi duena egiten du: Azketan lotan geratu, goizeko ordu txikietan Goizuetara abiatu edota nahi dena. Antolatziale lanetan dabilen Joxean Landaribarrek esan digunez, urtero bide ezberdin batetatik iristen omen dira Goizuetara.

Ibilbidea egiteko 5 ordu behar izaten dira baina bidean askotan gelditzen direnez eta patxada handiarekin hartzen

dutenez ez dago ibilbidea egiteko denbora jakinik. Goizuetara iristean Ixkina Taberna egiten dute parada hamaike-takoa egiteko.

Anekdotak

Hainbeste urteren ondoren badute zer kontatua. Lehengo urtean adibidez, urtero eramatzen duten mojito bidoia-rekin eskultura bat egin zuten, Azketa inguruau. Bestetik, duela urte batzuk, Goizuetarek bonberoak bidali zituzten Hernaniko eta Urnietako lagun talde bat mendian galdua zegoela esanez. Bonberoak hauen bila joan zirenean sekulako parrok egin zituzten mendian zeudenek, dena zurru-murrua baizen. □


Telemar

Itxastele, S.L



RENOVE PLANA
Movistar Active
Egundoko ESKAITZAK
Etxe tresnatan eta mugikorretan.

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60



Antziola-Motor
Salmenta eta tailler zerbitzua

Ford Mondeo



3 aukera ezberdin,
gusto ezberdinentzat:

- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

Etorri, ikusi eta aukeratu.

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13


■ ERREMONTA -CASINO KURSAAL BURUZ BURUKO TXAPELKETA

Zeberio II finalurrekoan da Bitoriari irabazita

■ Bitoriak partidua esku eskura izan zuen 20-24 aurretik zela, baina, nekeak eraginda behera egin zuen bukaeran ■ Gaur Lizaso eta Eizagirre aurrez aurre.

Zeberio II-ak	30
Bitoriak	26

PARTIDU gogorra, borrokatua eta ona jokatu zuten ostegunean Galarretan Patxi Zeberiok eta Xabier Bitoriak. Partidu hasieran Bitoriak dena ondo egin zuen eta aurrea hartu zuen markagailuan. Zeberio II-ak ahal zuen moduan eutsi zion partiduari, Bitoria dotore aritu baitzen eta sake luze eta kruzatarekkin min haundia egin baitzuen. Sei tantoko aldea ere izan zuen Bitoriak eta partiduko azken txanpan 20-24 aurretik izan zen. Hortik aurrera, ordea, fisikoki behera egin zuen eta Zeberiok 8 tanto segidan eginda 28-24 hartu zuen aurrea eta 30-26 irabazi zuen. Partidu bukaeran Zeberiok onartu zuen uste baino askozaz gehiago kostazitzaiola partidua irabaztea, eta Bitoriak oso partidu ona egin zuela "azkenean fisiko hobeagatik irabazi diot" esan zuen. Bitoria ere gustora zegoen nahiz eta aukerako partidua galdua pena pixka



Jon Urbe/Argazki Press

Zeberiok gogor eman zion pelotari lehenengo final-laurdenean.

bat izan "Zeberio fisikoki izugarria da eta bukaeran ia akabatu nau" onartu zuen.

Lizaso - Eizagirre gaur
Bigarren final laurdena jokatuko da gaur Galarretan Lizaso eta Eizagirren artean.

Faborito Lizaso aterako da, baina, Eizagirre ez da edozein buruz buru, eta dagoeneko urte batzuk baldi baditu ere, fin aritu beharko du doneztebearrak partidua aurrera atera nahi badu. Jaialdia 16:00etan hasiko da. □

■ FUTBOLA -JAVI PEREZ VACAS MEMORIALA

Stadium Casablanca taldea Hernani baino gehiago izan zen atzo Zubipen

Hernanik	1
Casablanca	4

JAVI Perez Vacas zenaren omenezko bigarren memoria jokatu zen atzo Zubipen eta iazko irabazlea izan zuen aurtengo edizioak ere. Zaragozako Stadium Casablanca jubenilek argi erakutsi

zuten zergatik dauden kategoriariak altuenean eta lau gol egin zizkioten Hernaniko mutilei eta gehiago egiteko aukerak ere izan zituzten. Hernaniko taldeak gogor borroka egin zuen eta gol bat egin zien zaragozarrei bigarren denbora erdialdera. Aurtengo kopa ere Zaragozara joan da, beraz.



Ricardo Ramos CDHko lehen-dakaria Zaragozako kapitaina-ri saria ematen.



Hernani eta Stadium Casablanca taldeko jokalari eta lehendakariak eta Javi Perez Vacasen senideak, denak batean, atzoko partidua hasi aurretik.

INGURUKO HERRIETAKO FESTAK

Goizueta, Donostia, Arano eta Astigarragan festa gaur

■ Goizuetan Amabirjinak ospatuko dituzte, Donostian Aste Nagusia eta Aranon eta Santio Menden San Roche eguna.

EGITARAUAK

GAUR DONOSTIAN

10:00 Skate Haur Txapelketa, Anoetan.

10:00 Hondarrezko Gazteluen Haurrentzako Txapelketa, Zurriolako hondartzan.

10:30 III Aste Nagusiko Billar Txapelketa, Idiakoz kaleko gizarte elkartean.

11:00 Barrene herrikoia, Trinidad plazan.

17:30 Haur Eskrima, Jose M. Sert plazan.

17:30 Haur festa, Zurriolako terrazan.

18:00 Zezenak Illunben.

18:00 Emperadores Mariachi taldea, Erdialdean.

18:00 Fanfareak kaleetan.

18:30 Txotxongiloak, Amara parkean.

20:00 Orfeo ed Euridice, Kursaalen.

20:00 Fila 7 taldearen Yo me bajo en la proxima.. antzezlan, Antzoki Zaharrean.

20:00 Folklore jaialdia, Konstituzio plazan.

22:45 Su Artifizialak, (Italia-Alemania)

23:00 Fila 7 taldearen Yo me bajo en la proxima.. antzezlan, Antzoki Zaharrean.

23:15 Zezensuzkoa.

23:30 Gau latinoa, Errege Katolikoetan.

23:30 Adeshoras-en emanaldia, Kataluinia plazan.

23:30 Juanes, Saguesen.

23:30 Martiko eta Garate, Paseo Berrian.

23:30 Paradigma, Zuloaga plazan.

23:30 Folk-Jazz, Trinidad plazan.

00:00 Ikabi-ren Berbena, Paseo Berrian.
00:30 Djak, Zurriolako terrazan.

GAUR GOIZUETAN

12:30 Afizionatu arteko pilota partiduak.

18:00 Umore-Ona, Gaztetxea, Guraso Elkarreta eta Batzordearen ordezkarien arteko joku lehia herriko plazan.

19:30 Txatunga Bembé herriko plazan, eta ondoren herriko kaleetan zehar.

00:00 Dantzaldia Trakets taldearekin eta Igande txaranga herriko kaleetan.

01:00 Suzko zezena.

GAUR ARANON

10:00 Diana eta kalejira.

11:00 Meza Nagusia San Roche ermitan

12:15 Pelota partidua

14:30 Bazkari herrikoia eta omenaldia Xabier Narbareri

18:30 Kalejira eta Agur Jaunak.

GAUR SANTIO MENDIN

11:00 Meza

11:30 Umeentzat Herri Kirol jolasak

-Astigar dantza taldea

-Bertsos Bazkari Herrikoia: Amets Arzallus, Sustrai Colina, Agin Rezola

-Haurren irrintzi txapelketa herrikoia

-Helduen dantza txapelketa herrikoia

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

■ Taxiak: 943 550093

■ Udaltzaingoa: 943 333288

■ DYA: 943 464622

■ Autobusak: 943 556662

■ Anbulatorioa: 943 006666

■ Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

■ Egunez: Gomez Justel

Kale Nagusia 14

■ 943 554892

■ Gaeuz: Gomez Justel

Kale Nagusia 14

■ 943 554892



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURERA

ERREMONTA JAIALDIA:

- partidua: Juaristi - Ion / Urteaga - Agirrezabal
- partidua: "Casino Kursaal" txap.: Lizaso - Eizagirre
- partidua: Ezkurra - Etxeberria II / Altuna II - Iriarte
- partidua: Sarasua - Urretabizkaia II / Bitoria - Badiola

